

Etenpuntuak

eta

eta abar



Etenpuntuak eta *eta abar* esapideak zerrenda bat burutu gabe dagoela adierazten dute.



Testuan segidan letorkeena isildurik dagoela adierazten du puntuazio-marka horrek, eta zerrendaren amaieran baino kasu gehiagotan erabiltzen da.



• Hiru puntuz osatutako puntuazio-marka da: ...

Ordenagailu-teklatuan:

- Mac: ⌘+.
- PC: Ctrl+Alt+.



• Haren aurrean ez da komarrik jartzen.

• ***Ikertzaileek zenbait lege eta printzipio aurkitu zituen: energiaren kontserbazioaren legea, Ohmen legea, Daltonen presio partzialen legea...***

- ***(...) Ohmen legea, Daltonen presio partzialen legea,...***

A, B, C... / * A, B, C,...

Estilo-gomendioa: zerrenda perpausaren bukaeran doanean baino ez erabiltzea gomendatzen da.

- *(?) Ikertzaileek energiaren kontserbazioaren legea, Ohmen legea, Daltonen presio partzialen legea... aurkitu zituen.*

Zerrendaren ondoren perpausaren beste zati batzuk datozenean, *eta abar* esapidea da egokiago.

- *Ikertzaileek energiaren kontserbazioaren legea, Ohmen legea, Daltonen presio partzialen legea eta abar aurkitu zituen.*

• Oro har, deklinatu egiten da, mugagabeen:

- *Suziri batek, itsasontzi batek, hegazkin batek **eta abarrek** fluido batean barrendu beharra daukate.*
- *Fermaten aieru ezinago ospetsuan, Goldbach-enean, Euler-enean, Catalanenean **eta abarretenan**.*
- *Eta, oro har, zenbaki osoak hiru zenbaki triangeluarren, lau karraturen, bost pentagonalen **eta abarren** batura dira.*

A-tik, B-tik, C-tik eta abarretatik

eta abar
eta abar

- Deklinatu gabe ere erabiltzen da (gutxiagotan bada ere).
- *Gure eztabaida aise zabaldu liteke hasiko bagina aztertzen zertan den egonkortasuna eta atomo- eta molekula-ugaritasuna kasuan kasuko errealitate bakoitzean (unibertsoan, Lurraren azalean, haren barruan **eta abar**).*

A-tik, B-tik, C-tik eta abar

- Zerrendako izenak pluralean daudenean, deklinabide-marka ezaba daiteke esapidearen aurreko izenetan.
 - *Esate baterako, animalien zirkulazio-sistema, aorta, arteria, zain, kapilar eta abarrekin.*

A-tik, B-tik, C-tik eta abarretatik
A, B, C eta abarretatik

eta abar
eta abar

- **Puntuazio-markak.** Zerrenda esaldiaren bukaeran bi puntuz bereizita dagoenean, eta izenak absolutiboan (NOR): **KOMAREKIN.**
 - *Pertsona juridiko-pribatuek har dezakete parte: fundazioak, elkarteak, eta abar.*

...: A, B, C, eta abar



- Puntuazio-markak:
- Gainerako kasu guztietan: **KOMARIK GABE.**
 - *Pertsona juridiko-pribatuek har dezakete parte: fundazioek, elkarteek eta abarrek.*

...: A-k, B-k, C-k eta abarrek

- *Fundazioek, elkarteek eta abarrek har dezakete parte.*

... A-k, B-k, C-k eta abarrek...

- Puntuazio-markak:
- Bi osagaiko “zerrenda” ez da zerrenda, juntadura baizik: KOMARIK GABE.
- *Pertsona juridiko-pribatuek har dezakete parte: fundazioak eta abar.*

...:A eta abar

- Laburdurak: **etab.** / **etc.**; ez dira deklinatzen.

A, B, C, etab.
A-tik, B-tik, C-tik, etab.

OHARRA. EHUko Euskara Zerbitzuak testuetan egitura osoa (*eta abar*) erabiltzea gomendatzen du, eta laburdura, berriz, tauletan eta abarretan.

- Zerrenda asko luzatzen dela adierazteko, errepikatu egiten da esapidea:
 - *Ruche jaunak esan ziezaiokeen andreari: "Hara, Perrette Liard deritzan emakume gazte batekin bizi naiz; hogeit hamar urte zituenean, estolda-zulo batera erori zen, **eta abar eta abar**.*

eta abar
eta abar

- Berebat, *eta abarren abarra* esapidea erabil daiteke:

- *Horixe sentitu dut, behinik behin, azken egunotako basamortua atzean utzi, eta uraren festa den Yosemite parkean sartu garenean, ibaiak, ur jauziak, aintzirak eta abarren abarra ikustean.*

Orotariko Euskal Hiztegia: *eta abarrera*



- Edo, halaber, *eta beste hainbat, eta beste asko* edo *eta beste* esapideak:
 - Aldiz, lertxuntxo zuriak **eta beste hainbat** hegazti urtarrek, lehenbizikoan asmatu behar dute arrain bat urez kanpotik harrapatzen (ez da izaten bigarren aukera askorik ehiza berarenik).
 - Lebig bazkari ederra eman zion Jesusi bere etxean; Jesusekin eta honen ikasleekin batera jende asko zegoen mahaian, zergalari **eta beste**.

eta abar
eta abar

- **Eta abar luze bat** kalkoa da (*un largo etcétera*), kalko okerra, eta baztertu egin behar da haren erabilera.
 - Ekintzen artean, jokoak, tailerrak, antzerkiak, dantzak, olinpiadak, bainuak **eta abar luze bat** antolatuko dira.
 - Ekintzen artean, jokoak, tailerrak, antzerkiak, dantzak, olinpiadak, bainuak, **eta abar eta abar** antolatuko dira.
 - Ekintzen artean, jokoak, tailerrak, antzerkiak, dantzak, olinpiadak, bainuak **eta beste hainbat** antolatuko dira.